

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

1. Zer da jakinarazpen hau?

2018eko ekitaldian ordaindu zenituen interes, komisio eta gastu batzuk zerrendatzen dituen agiri bat da. Ordainketa horiek guztiak titular/kotitular/abal-emaile gisa gure erakundearekin izenpetu zenituen finantziatio-kontratuekin erlazionatuta daude.

2. Jakinarazpenean agertzen diren zenbatekoak, nik ordaintzekoak dira?

Ez. Dagoeneko ordainduta dauzkazu, 2018ean. Agiri hau informazioa emateko besterik ez da.

3. Zergatik bidali didazue jakinarazpen hau?

Jakinarazpenean zehazten d(ir)en kontratu(ar)en titularra, kotitularra edo abal-emailea zarelako, eta, Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrak banku-zerbitzuen gardentasunari buruz eta maileguak emateak duen erantzukizunari buruz ezartzen duena betez, zure finantza-erakundea behartuta dagoelako bezero guztiei jakinarazpen hau bidaltzera.

4. Zenbatean behin jasoko dut jakinarazpen hau?

Urtean behin. Erosoagoa bazaizu eta nahiago baduzu jakinarazpen hau eta beste batzuk posta elektronikoz jaso, idatzi zure helbide elektronikoko eguneratua bezeroaren gunen pribatuan.

5. Informazio honek badu eraginik zergetan?

Ez. Informazioa emateko besterik ez da.

6. Zer da abal-emailea izatea? Zertan desberdintzen da titularra/kotitularra izatetik?

Abal-emailea: finantziarioari solidaritatez sendotasuna ematen dion pertsona da, eta kontratuaren titular/kotitularren erantzukizun berberak ditu.

Titularra/kotitularra: mailegua hartzen duen pertsona da, eta kontratutik ondorioztatzen diren obligazioak betetzeko ardura du.

7. Nola kalkulatu dira zenbateko horiek?

2018eko ekitaldian ordaindu dituzun interes, komisio eta gastu guztien batuketa eginez.

8. Zer da ohiko zigorra?

Ordainagiri bat itzuli izanak sortzen dituen gastuak dira (ez da sartzen berandutze-interesen zenbatekoa).

9. Zer alde dago interesen eta berandutze-interesen artean?

Interesak finantza-eragiketari aplikatzen zaizkionak dira; berandutze-interesak, berriz, ordainagiri bat ordaintzeari uzten zaion egunetik benetan ordaintzen den arte sortutakoak dira, eta ez diote eragiten ohiko zigorraren kobrantzari.

TERMINOEN GLOSARIOA

Interesak: kontsumitzaileak finantza-erakundeari ordaintzen diona ondasun bat gaur eskuratu eta bihar, hainbat kuotatan, normalean hilekotan, ordaintzeagatik. Kuota bakoitzean ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, hileko interesaren portzentajea (%) bider hil hasieran itzuli gabe geratzen den kapitala egiten da.

Berandutze-interesak: kontratuan ezarritako kuoten ordainketan atzeratzeagatik bezeroak ordaindu behar dituen zenbatekoak. Ordainagiria ordaintzeari uzten zaion egunetik benetan ordaintzen den egunera arte kalkulatu den ordaintzeke dagoen zenbatekoaren gainean.

Irekitze-komisioa: Bezeroaren ordainketa-ahalmena ebaluatzeagatik eta kreditua onartzean eman duen informazioa egiaztatzeagatik CaixaBank Consumer Finance erakundeak kobratzen duena.

Irekitze-komisio finantzatua: goian aipatutako irekitze-komisio hori CaixaBank Consumer Finance erakundeak eragiketaren hasieran ordaintzea eta bezeroak kredituaren kuotekin batera itzultzea.

Amortizazio-komisioa: kreditua kontratuan ezarritako epea baino lehen osorik edo zati batean indarririk gabe utziz gero CaixaBank Consumer Financek egin behar dituen kudeaketengatik bezeroak ordaintzen duen kontraprestazioa.

Ohiko zigorra: ordainagiri bat ordaindu gabe dagoelako CaixaBank Consumer Finance erakundeak egin behar duen erreklamazioa kudeatzeagatik bezeroak ordaintzen duena.

Eskudirua ateratzeagatik komisioa: CaixaBank Consumer Financek bezeroari kutxazain automatikoetan eskudirua prest ipintzeagatik edo banku-kontuan dirua sartzeagatik bezeroak ordaindu behar duena.